



EBALUAZIO-ERRUBRIKA
PROIEKTUAK.EUS - Gure naturagune babestuak



IRIZPIDEA	4-BIKAIN	3-OSO ONGI	2-NAHIKOA	1-ESKASA
Litologiaren, ezaugarri geologikoen eta arroken eraketaren azalpena (NNZZ 1.1 irizpidea)	Azalpena zehatza da, argi eta garbi deskribatutako eta zientifikoki justifikatutako prozesu geologikoekin.	Azalpenean prozesu geologiko nagusiak sartzen dira, baina eskatutako informazioaren bat falta da.	Azalpena laburra da eta eta prozesuak edo ezaugarriak ez dira behar bezala azaldu orokorrean.	Azalpena ez da osatu edo ez da zuzena.
Iturri zientifikoen hautaketa (NNZZ 2.1 irizpidea)	Iturri guztiak fidagarriak dira eta behar bezala aipatzen dira. Aukeratutako argazkiak egokiak dira.	Iturri gehienak fidagarriak dira eta aipatuta daude, baina akats txikiak daude, edo aukeratutako argazkiren bat ez da egokia.	Iturri batzuk ez dira fidagarriak edo ez dira behar bezala aipatzen, edo argazki gehienak desegokiak dira.	Iturriak ez dira egokiak edo ez dira aipatzen. Argazkirik ez da txertatu.
Argitasuna komunikazio zientifikoan (NNZZ 3.2 irizpidea)	Testua argia da, ondo egituratua, eta terminologia zientifiko egokia erabiltzen du.	Testua ulergarria da, baina terminologia edo egitura hobetu daiteke.	Testua ez da erabat argia eta terminologian akatsak daude.	Testua nahasia da edo ez du terminologia zientifikorik erabiltzen.
Jariakortasuna (EUS 3.1 irizpidea)	Narrazioa argia eta arina da, intonazio eta erritmo egokiekin. Erregistro formalaren erabilera eraginkorra da.	Narrazioa, oro har, argia da, erritmo edo intonazio arazo txikiekin. Erregistro egokia.	Narrazioak etenaldi luzeak ditu, edo erritmoa azkarregia da, edo ahoskera ez da oso argia.	Narrazioa ulertzea zaila da, erritmo, intonazio edo argitasun arazoak direla eta.